

# Alex Txikon



Alex Txikon  
Narbaez,

1981ean jaio zen. Lemoakoa da eta hainbat aldiz egon da Pamir, Karakorum eta Himalaya aldean. Besteak beste, 2002an Pamirreko Pico Chetirek eta Komunismo eta Korgenskayarako saioak egin zituen. 2003an Broad Peak, 2004an Makalu eta Cho Oyu, K2ko Cesen bidearen saioaz gainera, 2005ean Makaluko mendebaldeko pilareko saioa eta Pico Lenin, 2006an Shisha Pangmako britainiar bidearen saioa...



ALEX TXIKONEN ARGAZKIAK

## EUSKAL ENBAXADOREA HIMALAYAN

**M**IKEL du izena. Kathmanduko kale iskanbilatsuetan nenbilela ezagutu nuen 2004ko udaberrian. Lehen unetik harriturik utzi ninduen nepalera hain ondo hitz egiten zuen euskaldun hark. Thamel auzoan elkartu ginen.

Thamel mila koloredun auzo zabala, jendetsua eta zaratatsua da, egia esan, turistentzat sortutako herririka antzekoa. Edonolako jatetxe, denda, hotel, ostatu edo logela aurki dezakegu han: bost eta ehun euro bitarteko prezioan lo egin daiteke, bost izarretako luxuzko hotel batean nahiz logelarik xumeenean. Jatetxeen kasuan ere, txuleta ederra jatetik "dhal-bat" jatera -nepaldarren eguneroko jakia, arroza, dilistak eta, zenbaitetan, barazkiak- gama osoa dugu. Goizean goiz esnatu eta, nahi duenarentzat, berandu oheratzen den auzoa da Thamel. Ni neu, lehen orduan jaiki eta turisten erara kontsumitzaile konpultsibo bilakatzen naiz sarritan, dendaz gainezka dauden kaleetan barrena. Nepalera hurbiltzeko asmoa duenak, bertakoek dioten legez "bistare-bistare" ibili behar du, lasai-lasai.

Eta hemen bizi da ezagutzera eman nahi dizuedan laguna: hainbat euskal mendizalaren adiskide den Mikel Leizeaga. Arazo edo beharrezan bat duenaren laguntzaile edo bitartekari izaten dakiena. Nepal aldera hurbiltzen naizen bakoitzean, inoiz ez dut Errioxako ardo eta euskal gazta ahazten. Eta ez edozein Errioxa, ezta Mikel?

Mikel Aingeru Leizeaga Ugarte da, legazpiarra, baina abentura senari jarraituz, munduan zehar etengabe ibilitakoa. Hamabi bat urte dira Kathmandura iritsi zela. Trekking bat egitera joan eta, bidaiaren gastuei aurre egiteko, bertan erositako jeneroak Euskal Herrian saltzea otu zitzaion. Negozioa ongi irten eta berehala bertaratu zen

berriro, oraingoan buruan plan handiak zituela. Garai hartan nepaldarren sinpatiak eta egindako abegi izugarriak asko lagundu zioten bueltatzeko erabakia hartzen. Benetan maitatua sentitu zen eta bakean egoteko lekua aurkitu zuen Nepalen. Mendebaldeko gizakiok horretaz zer ikasi handia daukagula dio Mikelek. Baina badira beste arrazoi batzuk han gustura gelditzeko: Himalayako geografia eta paisaia ikaragarriak.

Buruari buelta batzuk emanik, Gipuzkoako lagun batekin enpresa bat sortzea erabaki zuen. Orduetik hona Mikel enpresa horretako ekoizpenaz eta kontrolaz arduratzen da Nepalen. Bitartean bere kideak komertzial lanak egiten ditu Euskal Herrian. Artisanu produktuen salmentan ari dira.

Hasieran Euskal Herrian ere tartetxoak igarotzen zituen baina, luze gabe neska nepaldar batez maintemindu eta berarekin ezkondu zen. Elisa du izena eta harrezkero tarte luzeagoak egiten ditu Nepalen. Hala ere, urtean birritan gutxienez egiten du bidaiaria hain maite duen Euskal Herri honetara.

Nepalera joaten garenontzat garrantzitsua da han Mikel bezalako lagunak aurkitzea, hemen arazo txiki eta konponerraza dena, han buruhauste handia izan daitekeelako. Gure bidaietako hegazkin txartelek, adibidez, abiatze data ezaguna bai baina itzulera zehaztu gabe izaten dute. Datu aldaketa egiterakoan, Mikelek bost minututan konpontzen du kontua inolako arazorik gabe. Leihatilara gu joanez gero, berriz...

Kathmanduko kaleetatik bazabiltza eta nepalera hitz egiten duen mutil euskalduna ikusten baduzu, ez izan dudarik. Hurbildu eta agurtu, mutil aparta da eta harrera beroa egingo dizu. □

**Mikel Aingeru  
Leizeaga Ugarte  
da, legazpiarra,  
baina abentura  
senari jarraituz,  
munduan zehar  
etengabe  
ibilitakoa.**